

ENARGI ARABA SAU

2023KO EKITALDIKO MEMORIA

1. ENPRESAREN JARDUERA

Sozietatea pertsona bakarreko sozietate anonimo gisa eratu zen, 2020ko azaroaren 6an, Gasteizen (Probintzia plaza, z/g).

Sozietatearen helburua da mota guztietako jarduerak, obrak eta zerbitzuak egitea, propioak edo honako hauen negozioekin lotutakoak:

- a) Energia iturri berriztagarriak erabiltzen dituzten instalazioen bidez energia ekoiztea eta merkaturatzea, besteak beste, ekoizpen hidraulikoa, eolikoa, eguzki energia termikoa, fotovoltaikoa edo biomasatik abiatutakoa.
- b) Bioerregaiak eta produktu eratorriak ekoiztea, tratatzea eta merkaturatzea.
- c) Aurreko "a" eta "b" apartatueta jasotako instalazioetako proiektuak egitea, bertako ingeniartza, horiek eraikitzea, abiatzea, horien mantentze lanak eta horiek besterentzea, hala berezkoak nola hirugarrenenak, baita instalazio mota horiekin lotutako azterketa zerbitzuak, ingeniartza azterlanak edo energia aholkularitzakoak, ingurumen aholkularitzakoak eta aholkularitza tekniko eta ekonomikokoak ere.

Erregistro datuak: 1712 liburukia, 115 orria, VI-20166 erregistro orria.

Arabako Foru Aldundiko Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren Sailari atxikitako foru sozietate publikoa da.

2. URTEKO KONTUAK AURKEZTEKO OINARRIAK

2.1. Irudi zehatza

Erantsitako urteko kontuak sozietatearen kontabilitate erregistroetatik atera dira. Espainian orokorki onartuta dauden eta indarreko legerian jasotzen diren kontabilitate irizpideak betez egin ditu Administrazio Kontseiluak, horrela kontuek sozietatearen ondarea, finantzen egoera eta ekitaldian lortutako emaitzak zehatz-mehatz azaltzen dituztelako, bai eta ondare garbian izan diren aldaketak ere.

Sozietateko administratzaileek egin dituzte kontuak, eta Akziodunen Batzar Orokorrak onartu behar ditu. Aurreikuspenen arabera, aldaketarik egin gabe onartuko dira. Aurreko ekitaldiko urteko kontuak 2023ko maiatzaren 30ean onetsi zituen Ohiko Batzar Orokorrak.

Urteko kontuak Merkataritza Kodearen eta indarrean dagoen merkataritza legeriaren arabera prestatu dira, baita 1514/2007 Errege Dekretuak onetsitako Kontabilitate Plan Orokorren arabera ere.

2.2. Aplikaturako kontabilitate printzipioak, nahitaezkoak ez direnak

Irudi zehatza erakusteko, ez da egon nahitaezko kontabilitate printzipioren bat ez aplikatzea justifikatzen duen ezohiko arrazoirik. Irudi zehatza erakusteko nahitaezkoak ez diren kontabilitate printzipioak ez dira aplikatu.

2.3 Balorazioaren alderdi kritikoak eta ziurgabetasunaren zenbatespena

Sozietatea Arabako Lurralde Historikoko Foru Administrazioan integratutako sozietate publikoa da. Horregatik, Arabako Foru Aldundiaren, bere bazkide bakarraren, ondare- eta finantza-laguntza dauka. Ondorioz, uste da ez dagoela sozietatearen jarraipenari eragin diezaiokeen arriskurik eta, beraz, egoki jotzen da, urteko kontuak egitean, funtzionamenduan dagoen enpresaren printzipioa aplikatzea.

2.4 Informazioaren alderaketa

Urteko kontuek, egoera balantzeko, galera-irabazien kontuko eta ondare garbiaren aldaketen egoera orriko partidetako bakoitzarekin alderatzeko, 2022ko ekitaldiko kopuruez gain, aurreko ekitaldiko kopuruak ere aurkezten dituzte.

Urteko kontuak 8/2014 Foru Dekretuak onetsitako ereduaren arabera aurkeztuko dira. Erkakargiak dira 2022ko eta 2023ko ekitaldietako urteko kontuak. Era berean, memoria honetan 2023ko ekitaldiari buruz ageri den informazioa 2022ko ekitaldiko informazioarekin aurkezten da, alderaketak egin ahal izateko.

2.5 Partida batean baino gehiagotan jasotako elementuak

Sozietateak, ekitaldiaren amaieran, ez dauka Balantzean, Galera-irabazien Kontuan edo Ondare Garbiko Aldaketen egoerako partida batean baino gehiagotan jasota dagoen ondare elementurik.

2.6 Kontabilitateko irizpideen aldaketak eta kontabilitateko zenbatespenen aldaketengatiko doikuntzak

Ekitaldi honetan eta aurrekoan ez da doikuntzarik egin kontabilitate irizpideak aldatzearen edo kontabilitateko zenbatespenak aldatzearen ondorioz.

2.7 Kontabilitateko irizpideen aldaketak eta kontabilitateko zenbatespenen aldaketengatiko doikuntzak

Aurreko ekitaldian, kontabilitate akats bat zuzendu zen, eta 60,00 euroan erregistratu da sozietateak dirulaguntza, dohaintza eta legatuen kontuan kontrapartida duten kooperatiba sozietate batzuetan ordaindutako partaidetzen balioa.

Ekitaldi honetan, ez da egin zuzendu beharreko akatsen ondoriozko doikuntzarik.

3. EMAITZEN BANAKETA

Administrazio Kontseiluak Akziodunen Batzar Orokorrean ekitaldiko emaitzen banaketa hau proposatuko du:

Base de Reparto	2022	2021
- Saldo de la Cuenta de Pérdidas y Ganancias	-25.495,09	-10.924,00
TOTAL	-25.495,09	-10.924,00
Aplicación	2022	2021
- Resultados negativos	-25.495,09	-10.924,00
TOTAL	-25.495,09	-10.924,00

4. ERREGISTRORAKO ETA BALORAZIORAKO ARAUAK

Aplikaturako erregistro eta balorazio arauak Kontabilitate Plan Orokorraren bigarren zatian aurreikusitakoak dira.

4.1. Ibilgetu materiala

Ondasun ibilgetu guztiak enpresaren ekoizpen normalaren zikloan erabiltzen dira edo erabiliko dira. Ez dago aktiborik ez salgai, ez errentan. Beraz, ibilgetu materialaren kontuan sailkatzen dira guztiak.

Eskuratze prezioaren edo ekoizpen kostuaren arabera balioesten dira, eta, beraz, fakturatutako zenbatekoaz gain (prezioan edozein deskontu edo beherapen kenduta), martxan jarri arte sortzen diren gastu gehigarri eta zuzeneko guztiak eta jasanarazi ezin diren zergak ere hartzen dira kontuan.

Ibilgetu materialeko elementuen amortizazioa abian jartzeko eskuragarri dauden unetik egiten da, modu linealean balioetsitako bizitza erabilgarrian zehar; bizitza hori lau urtekoa da (ekipo informatikoak). Ekitaldiko zuzkidura 159,49 euro izan da.

4.2. Ondare tresnak

1514/2007 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Kontabilitate Plan Orokorra (9. araua, finantza tresnak eta kontabilitate estaldurak) aldatzen duen urtarilaren 12ko 1/2021 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera, taldeko enpresetako, talde anitzetako eta elkartuetako partaidetzak kostuko aktibo finantzarioen kategorian sailkatzen dira. Arrazoizko balioan balioztatzen dira, hau da, transakzioaren prezioan: emandako kontraprestazioaren arrazoizko balioa gehi zuzenean egotzen zaizkion transakzio kostuak. Gero, kostuaren arabera baloratuko dira, narriaduragatik egindako balio zuzenketen zenbateko metatua kenduta. Partaidetzen erosketa dirulaguntzen bidez finantzatu denez, erregistratutako narriadura itzulezina da.

Narriaduragatik balio zuzenketa zenbateko, kontuan hartzen da partaidetzapekoaren funts propioek ekitaldian izandako bilakaera, ekitaldiaren itxieran dauden gainbalio tazituak kontuan hartuta.

4.3. Finantza tresnak

4.3.1) Finantza-aktiboak

Kostu amortizatuko finantza aktiboak

Partida honetan erregistratu dira merkataritzako eragiketen eta merkataritzakoak ez diren eragiketen ziozko kredituak, zenbateko jakin bat dutenak, zeinetan sozietateak ordaindutakoa eta eratutako gordailuak berreskuratzea aurreikusten baita.

1514/2007 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Kontabilitate Plan Orokorra (9. araua, finantza tresnak eta kontabilitate estaldurak) aldatzen duen urtarilaren 12ko 1/2021 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera, amortizatutako kostuko aktibo finantzarioen kategorian sailkatzen dira.

Hasieran eta geroago, arrazoizko balioaren arabera erregistratzen dira: transakzioaren prezioa gehi zuzenean egotzi daitezkeen kostuak. Gero, kostuaren arabera baloratuko dira, narriaduragatik egindako balio zuzenketen zenbateko metatua kenduta.

Irizpide hau aplikatzen da gehienez urte bateko epemuga duten merkataritzako eragiketetan, kontratuzko interes tasa ez badute, epe laburrera kopuru horiek jasotzea espero baita.

Urte batetik gorako epemuga duten eragiketei, balorazio hori aplikatzen zaie, kontratuzko interes tasa esplizitua baitute. Interesak sortzen diren unean erregistratzen dira.

Ondorengo balorazioa

Kobratu beharreko mailegu eta partidak honela balioetsiko dira: beren balio nominal edo eskualdaketa prezioa, ken litekeen narriadura prezioa kontuan hartuta.

Ekitaldia amaitzean behintzat, sozietateak narriadurari buruzko testa egiten du, arrazoizko balioarekin erregistratuta ez dauden finantza-aktiboetarako. Narriadura dagoela ezarri ahal izango da, baldin eta finantza aktibotik berreskuratu daitezkeen balioa liburuetan duen balioa baino baxuagoa bada. Halakorik gertatzen denean, narriadura hori galera-irabazien kontuan erregistratzen da.

Kostuko finantza-aktiboak

Kategoria honetan sartutako inbertsioak kostuaren arabera baloratuko dira hasieran, hau da, emandako kontraprestazioaren arrazoizko balioa gehi zuzenean egotz dakizkiekeen transakzio kostuak. Hala badagokio, taldeko enpresei dagokienez, taldeko enpresen arteko eragiketei buruzko arauko 2. apartatuan jasotako irizpidea aplikatu beharko da, bai eta negozio konbinazioei buruzko arauan ezarritako konbinazioaren kostua zehazteko irizpideak ere.

Hala ere, taldeko, talde anitzeko edo elkartuko enpresa gisa sailkatu aurreko inbertsiorik balego, inbertsio horren kostutzat hartuko litzateke enpresak kalifikazio hori izan aurretik izan beharko lukeen kontabilitate-balioa.

Hasierako balioespenean sartuko da lehentasunezko harpidetza eskubideen eta antzekoen zenbatekoa, halakorik eskuratu bada.

Ondoren, kategoria honetan sartutako ondare tresnak kostuaren arabera balioetsiko dira, narriaduragatik egindako balio zuzenketen zenbateko metatua kenduta, halakorik dagoenean.

Aktibo horiei balantzean baja emateagatik edo beste arrazoiren batengatik esleitu behar zaienean balioa, batez besteko kostu haztatuaren metodoa aplikatuko da, talde homogeneoen arabera, eta talde homogeneotzat hartuko dira eskubide berdinak dituzten balioak.

Ekitaldia ixtean, behintzat, egin behar diren balioespen zuzenketak egingo dira, baldin eta inbertsioen kontabilitate balioa berreskuragarria ez den ebidentzia objektiborik badago

Arrazoizko balioko finantza aktiboak, ondare garbian aldaketak sortu dituztenak

Finantza aktibo bat kategoria honetan sartuko da, finantza aktiboaren kontratu baldintzek, zehaztutako datetan, eskudiru fluxuak sortzen dituztenean, eta fluxu horiek printzipalaren kobrantzak eta interesak baino ez direnean ordaintzeke dagoen printzipalaren zenbatekoaren gainean, eta ez bada mantentzen negoziatzeko eta ez badagokio kostu amortizatuko aktiboen kategorian sailkatzea.

Kategoria honetan sartutako aktibo finantzarioak arrazoizko balioan balioetsiko dira hasieran, eta kontrako ebidentziarik ezean, transakzioaren prezioa izango da, hau da, emandako kontraprestazioaren arrazoizko balioa, zuzenean egotz dakizkiekeen transakzio kostuak gehituta.

Hasierako balioespenean sartuko da lehentasunezko harpidetza eskubideen eta antzekoen zenbatekoa, halakorik eskuratu bada.

Euren arrazoizko balioagatik baloratuko dira, besterentzean sor daitezkeen eskualdaketa kostuak kendu gabe. Arrazoizko balioan gertatzen diren aldaketak zuzenean erregistratuko dira ondare garbian, finantza aktiboak balantzean baja ematen duen edo narriatzen den arte; une horretan hala aitortutako zenbatekoa galera irabazien kontura egotziko da.

Hala ere, atzerri monetako aktibo finantzario monetarioen kanbio-diferentzien ondoriozko balio-narriaduragatiko balio-zuzenketak eta galera-irabaziak, azken horri buruzko arauarekin bat etorritik, galera-irabazien kontuan erregistratuko dira.

Galera-irabazien kontuan erregistratuko dira, halaber, interesen zenbatekoa, interes tasa efektiboaren metodoaren arabera kalkulatuta, eta sortutako dibidenduen zenbatekoa.

Arrazoizko balioko finantza-aktiboak, galera-irabazietan aldaketak sortu dituztenak

Finantza aktibo bat kategoria honetan sartuko da, finantza aktiboaren kontratu baldintzek, zehaztutako datetan, eskudiru fluxuak sortzen dituztenean, eta fluxu horiek printzipalaren kobrantzak eta interesak baino ez direnean ordaintzeke dagoen printzipalaren zenbatekoaren gainean, eta ez bada mantentzen negoziatzeko eta ez badagokio kostu amortizatuko aktiboen kategorian sailkatzea.

Kategoria honetan sartutako aktibo finantzarioak arrazoizko balioan balioetsiko dira hasieran, eta kontrako ebidentziarik ezean, transakzioaren prezioa izango da, hau da, emandako kontraprestazioaren arrazoizko balioa, zuzenean egotz dakizkiekeen transakzio kostuak gehituta.

Hasierako balioespenean sartuko da lehentasunezko harpidetza eskubideen eta antzekoen zenbatekoa, halakorik eskuratu bada.

Euren arrazoizko balioagatik baloratuko dira, besterentzean sor daitezkeen eskualdaketa kostuak kendu gabe. Ekitaldiko galera-irabazien kontuari egotziko zaizkio arrazoizko balioan egiten diren aldaketak.

Epe laburreko finantza inbertsioak epemugara arte mantenduko dira, eta haien balorazioa ez da hasierako balioespenarekiko desberdina izango.

- Eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk: erantsitako egoera balantzeko epigrafe honen barruan erregistratzen dira kutxa eta bankuetako eskudirua, ageriko gordailuak eta likidezia handiko epe laburreko beste inbertsio batzuk. Azken horiek, hain zuzen, ez dute balioak aldatzeko arriskurik.

Balantzean, aktibo finantzarioak sailkatzen dira korrante eta ez-korrontetan, ekitaldiaren itxiera datatik hamabi hilabete edo gutxiagoko epemuga izatearen arabera.

Balio narriadura

Finantza aktiboek liburuetan duten balioaren zuzenketa, berriz, galera-irabazien kontuaren kargura egiten da, narriaduraren ziozko galera badago. Narriaduraren zantzuak daudela usteko da baldin eta finantza aktiboen balio berreskuragarria liburuetan dutena baino gutxiagoa bada.

Narriaduraren ziozko galera ebaluatzeko, aldiz, saldo zordunen banakako azterketa egiten da, aspaldikoak direlako edo ezaugarri bereziak dituztelako kobratzeko arriskua dutenak hartuta.

4.3.2) Finantza-pasiboak

Kostu amortizatuko finantza-pasiboak

Epigrafe honetan sartzen dira erosketen eta zerbitzu emateen zorrak, bai eta merkataritzakoak ez diren eragiketen zordunketak ere, sozietateak jasotako mailegu edo kreditu eragiketetatik datozen tresna eratorriak ez badira.

Zuzenean egotzi daitezkeen gastuak, hala, onartzen diren unean bertan edo geroago erregistratzen dira, arrazoizko balioan, hau da, transakzioaren prezioan. Balio hori kalkulatzeko, gainera, kontraprestazioaren balioa eranstean da. Irizpide hori aplikatzen da, pasiboak epe motzean likidatuko direla uste delako, edo, muga-egun luzeoketan, kontratuzko interes tasa bat ezarrita dutelako.

4.4. *Mozkinen gaineko zergak*

Sozietateak sozietateen gaineko zergaren zerga oinarri negatiboa du, baina ez du inolako gasturik erregistratu zerga kontzeptu horrengatik, eta ez du aktibatu zerga oinarri horren konpentsaziotik eratorritako kreditu fiskalaren eragina etorkizuneko ekitaldietan.

4.5. *Kapital dirulaguntzak*

Kapital dirulaguntzak, bestalde, benetan emandako eta ordaindutako zenbatekoaren arabera baloratzen dira, eta bizitza erabilgarriak dirauen edo finantzatutako elementuak erabiltzen diren edo haien balioa narriatzen den aldian aplikatzen zaizkie emaitzei. Sozietateak dirulaguntzak lortzeko behar diren betekizun guztiak bete ditu.

Harik eta dirulaguntza dagokion xederako erabil dadin ezarri diren baldintzak bete arte, jasotako edo aitortutako diru kopuruak pasibo galdagarriaren kontuetan erregistratzen dira, diruz lagundutako proiektuak gauzatu arte.

4.6. *Diru sarrerak eta gastuak*

Sozietateak bere jardueraren ohiko garapenaren ondoriozko diru sarrerak aitortzen ditu, erabiltzaile eta zordunekin konprometitutako ondasun eta zerbitzuen kontrolaren transferentzia gertatzen denean. Une horretan, erakundeak diru sarrera baloratuko du, ondasun eta zerbitzu horien truke jasotzeko eskubidea izatea espero duen kontraprestazioaren zenbatekoa aintzat hartuta.

Aitorpena

Erakundeak kontratu batetik eratorritako diru sarrerak aitortzen ditu bezeroari konprometitutako ondasun eta zerbitzuen gaineko kontrola (hau da, bete beharreko betebeharrak) transferitzen zaionean (edo egin ahala).

Zerbitzu baten kontrola (aktibo bat) ondare elementu horren erabilerari buruz erabat erabakitzeko eta gainerako onura guztiak lortzeko gaitasunari dagokio. Kontrolaren barruan sartzen da gaitasuna izatea eragozteko beste erakunde batzuek aktiboaren erabilerari buruz erabakitzea eta onurak lortzea.

Betebehar bakoitzerako (ondasunak entregatzea edo zerbitzuak ematea), erakundeak kontratuaren hasieran erabakitzen du hartutako konpromisoa denboran zehar edo une jakin batean beteko den.

Denboran zehar betetzen diren konpromisoetatik (oro har, zerbitzu emateetatik edo ondasun salmentatik) eratorritako diru sarrerak kontratu betebeharrak erabat betetzeko aurrerapen mailaren arabera aitortzen dira, baldin eta erakundeak informazio fidagarria badu aurrerapen maila neurtzeko.

Sozietateak, hartutako konpromisoa betetzen duen heinean, berrikusi eta, behar izanez gero, aldatu egiten ditu aitortu beharreko diru sarreraren zenbatespenak. Berrikuspen horien beharrak ez du nahitaez adierazten eragiketaren amaiera edo emaitza fidagarritasunez zenbatetsi ezin denik.

Data jakin batean erakundea ez bada gai betebeharraren betetze maila arrazoiz neurtzeko (adibidez, kontratu baten lehen etapetan), nahiz eta konpromiso hori betetzeko egindako kostuak berreskuratzea espero duen, diru sarrerak eta dagokion kontraprestazioa baino ez dira aitortzen, ordura arte egindako kostuen zenbateko berean.

Zerbitzuak emateagatik diru sarrera gisa aintzatsitako kreditu eskubidea kobratzeari buruzko zalantzak daudenean, narriaduraren ondoriozko galera narriaduraren balio zuzenketagatiko gastu gisa erregistratuko da, eta ez diru sarrera txikiago gisa.

Balorazioa

Ondasunak emateetik eta zerbitzuak emateetik datozen diru sarrera arruntak diruzko zenbatekoan balioesten dira, edo, hala badagokio, hartutako edo hartzea espero den kontrapartidaren arrazoizko balioan. Kontrako ebidentziarik ezean, zordunari transferitu beharreko aktiboentzat adostutako prezioa da, honako hauek kenduta: edozein deskonturen zenbatekoa, erakundeak prezioan edo antzeko partidetan egindako beherapena, eta kredituen nominalari erantsitako interesak. Hala ere, merkataritzako kredituei erantsitako interesak sartu ahal izango dira, epemuga urtebete edo laburragoa badute eta kontratuzko interes tasarik ez badute, diru fluxuak ez eguneratzearen ondorioa esanguratsua ez denean.

Ez dira diru sarreraren barruan sartzen erakundeak hirugarrenei jasanarazi behar dizkien zerbitzuak emateko eragiketak zergapetzen dituzten zergak, hala nola balio erantsiaren gaineko zerga eta zerga bereziak, ez eta hirugarrenen kontura jasotako zenbatekoak ere.

Sozietateak, sarreraren balorazioan, kontuan hartzen du kontraprestazio aldakorraren zenbatespen onena, baldin eta oso litekeena bada aitortutako diru sarreraren zenbatekoaren itzulketa esanguratsurik ez gertatzea, ondoren kontraprestazio horri lotutako ziurgabetasuna ebazten denean.

Arau orokorraren salbuespen gisa, lizentziak lagatzeko akordioekin lotutako kontraprestazio aldakorra, aktibo horien salmentetan edo erabileran parte hartuz, honako gertakari hauen ondorengoa gertatzen denean (edo gertatzen den heinean) soilik aitortzen da:

- a) Salmenta edo ondorengo erabilera gertatzen da; edo
- b) Erakundeak kontratuaren arabera bere gain hartzen duen betebeharra, zeinaren zati bat edo kontraprestazio aldakor osoa esleitu baitzaio, ordainduta dago (edo partzialki ordainduta).

4.7. Hornidurak eta kontingentziak

Enpresak hornidura gisa kontabilizatuko ditu zenbateko edo kitatzeko data zehaztugabea duten pasiboak. Legezko edo kontratuko xedapen batek edo betebeharrak inplizitu edo isilbidezko batek eragin ditzake. Ekitaldi itxieran balioetsiko dira, obligazioa kitatzeko edo hirugarren bati transferitzeko beharrezkoa den zenbatekoaren zenbatespenik onenaren balio eguneratua.

4.8. Lotutako alderdien arteko transakzioak

Talde bereko enpresen arteko eragiketak arrazoizko balioan kontabilizatuko dira hasieran. Eragiketa batean adostutako prezioa ez badator bat arrazoizko balioarekin, diferentzia eragiketaren errealitate ekonomikoaren arabera erregistratu beharko da. Ekitaldian ez da egin lotetsizat har daitekeen eragiketarik.

4.9. Aktiboen eta pasiboen sailkapena: korronteak eta ez-korronteak

Balantzean, aktiboak eta pasiboak sailkaturik ageri dira, korronte eta ez-korrontetan. Aktiboak eta pasiboak korronteak izaten dira sozietatea ustiatzeko ziklo arruntari lotuta daudenean eta ziklo horretan zehar saltzea, kontsumitzea, gauzatzea edo likidatzea espero denean, edo haien epemuga, besterentzea edo gauzatzea beranduen urtebeteko epean izatea espero denean. Eskudirua edo aktibo likido baliokideak badira, urtebete baino denbora luzeagoan erabiltzeko muga ezabatuko da.

5. ONDARE TRESNAK

Sozietateak beste enpresa batzuetan dituen partaidetza balioengatik izandako bilakaera honako hau izan da:

Coste	Euros
Saldo Inicial (01.01.2022)	178.920,00
- Altas	60,00
- Bajas	0,00
Saldo Final (31.12.2022)	178.980,00
- Altas	10,00
- Bajas	0,00
Saldo Final (31.12.2023)	178.990,00
Deterioro de Valor	Euros
Saldo Inicial (01.01.2021)	-23.500,00
- Altas	0,00
- Bajas	0,00
Saldo Final (31.12.2022)	-23.500,00
- Altas	-1.948,69
- Bajas	0,00
Saldo Final (31.12.2023)	-25.448,69
VALOR NETO	153.541,31

Sozietatea Ekienea SL sozietatearen 87.600 partaidetza sozialen titularra da guztira, bakoitza 1,00 euroko balio nominalarekin, hau da, kapital sozialaren % 2, 87.600,00 euroko prezioan.

Horrez gain, bazkideek sozietatearen funts propioetara egindako diru ekarpenen % 2 subrogatu da, 91.320,00 euroko zenbatekoan, baina ez dute kapital gehikuntzarik ekarri. Bi ordainketa horiek partaidetza eskuratzeko kostua izan ziren.

Eragiketa horren barruan, finantza erakunde batek Ekienea SLri emandako kredituaren % 2 laga zitzaion (7.200,00 euro).

Arabako Foru Aldundiak 186.120,00 euroko transferentzia egin zuen aurreko ekitaldian, eragiketa horiek finantzatzeko.

Sozietateak, guztira, 70,00 euro ordaindu zituen, 10,00 euroko ekarpen indibidualen bidez. Ekarpene horietako bakoitzak kontsumitzaileei panelak eta sortutako energia aldi baterako eta kontingentziaz esleitzeko kontratuak sinatu dituen hurrengo kooperatiben kapitalera bideratu zituen. Ekarpene hori Arabako Foru Aldundiak finantzatu du.

Cooperativa	Euros
Arabako Errioxako Ekiola S.Coop.	10,00
Arabako Lautadako Ekiola S.Coop.	10,00
Arabako Mendialdeko Ekiola S.Coop.	10,00
Gorbeialdeko Ekiola S.Coop.	10,00
Aiarako Ekiola S.Coop.	10,00
Añanako Ekiola S.Coop.	10,00
Gasteizko Landako Ekiola S.Coop.	10,00
Total	70,00

Balio narriadura

Funts propioek izandako bilakaera eta partaidetzapekoaren ondare egoera kontuan hartuta, -25.448,69 euroko balio narriadura erregistratu da (-1.948,69 euro 2023an).

Partaidetzapekoaren egoera

- Ekienea SLren helburua da elektrizitatearen ekoizpenarekin eta merkaturatzearekin zerikusia duten edo berezko diren jarduera, obra eta zerbitzu guztiak egitea, Armiñongo udalerrian dauden eta energia iturri berriztagarriak erabiltzen dituzten instalazioen bidez.
- Egoitza soziala: Urartea kalea 2, Ehariko industrialdea (Gasteiz).
- Partizipazioaren ehunekoa: % 2,00

- Liburutan balioa: 153.471,31 euro.

- Ondare garbia, 2023ko ekitaldia ixtean:

Concepto	Euros
- Capital Social	4.380.000,00
- Otras aportaciones de socios	4.566.000,00
- Resultados negativos	-1.181.517,38
- Resultado del ejercicio (*)	-90.917,19
Total	7.673.565,43

(*) Ustiapenaren emaitza: -119.619,93 euro.

6. **FINANTZA TRESNAK**

6.1. **Finantza-aktiboak**

Epe luzeko finantza-aktiboak

Epe luzerako kredituen partidak honako kontzeptu hauek jasotzen ditu:

Concepto	2023	2022
Ekienea S.L.	7.200,00	7.200,00
Arabako Errioxako Ekiola S.Coop.	59.960,00	59.960,00
Arabako Lautadako Ekiola S.Coop.	834.072,64	120.000,00
Arabako Mendialdeko Ekiola S.Coop.	1.042.591,38	1.042.591,38
Gorbeialdeko Ekiola S.Coop.	100.000,00	100.000,00
Aiarako Ekiola S.Coop.	80.000,00	80.000,00
Añanako Ekiola S.Coop.	60.000,00	60.000,00
Gasteizko Landako Ekiola S.Coop.	39.950,00	0,00
Total	2.223.774,02	1.469.751,38

7.200,00 euroko partida honek barne hartzen du Ekienea SL sozietateari Ekienea SL sozietatearen partaidetzak erosteko eragiketan lagatako kredituen zenbatekoa.

Sozietateak kontsumitzaileei panelak eta sortutako energia aldi baterako eta kontingentziaz esleitzeko kontratuak sinatu ditu honako kooperatiba hauekin:

- Arabako Errioxako Ekiola sozietate kooperatiboa
- Arabako Lautadako Ekiola sozietate kooperatiboa
- Arabako Mendialdeko Ekiola sozietate kooperatiboa
- Gorbeialdeko Ekiola sozietate kooperatiboa
- Aialako Ekiola sozietate kooperatiboa
- Añanako Ekiola sozietate kooperatiboa
- Gasteizko Landako Ekiola S.Coop

Sinatutako akordioen arabera, kooperatiba bakoitzak panelen esleipen iragankorra eta kontingentea egiten dio Enargi Araba SAUri, Enargik azkenean ordaindutako zenbatekoa zati kooperatibak eraikuntzarako egiten duen inbertsioaren kostu osoa eginda ateratzen den planta fotovoltaikoaren chunekoari dagokiona, Enargik beretzat edo hirugarren batentzat horietatik ateratzen den elektrizitatea esleitzeko aldi baterako aukera eskubidea izan dezan. Esleipen hori iragankorra eta kontingentea izango da, eta kooperatiban Enargiri esleitutako panel batzuk edo guztiak behar dituzten bazkide kontsumitzaileak sartzen direnean etengo da erabat edo partzialki. Panel horien energiari buruz eratzen da aukera, haren kontsumo elektrikoei erantzuteko. Eragiketaren helburua kontuan hartuta, Enargik emandako zenbatekoak bazkide kontsumitzaileen bitartez itzuliko dira. Horrelakorik gertatzen ez bada, instalazioa martxan jartzen denean ibilgetu ukiezinaren kontutara pasatuko dira.

Emandako aukeraren prezioa ez da 120.000,00 eurotik gorakoa izango, horixe baita gehieneko balioa. Prezioa egutegi honen arabera ordainduko da:

- Kontratua sinatzen denean, 20.000,00 euro.
- Planta fotovoltaikoa eraikiko den lurzorua egokitzeko hirigintza dokumentazioa aurkezteko unean, 20.000,00 euro.
- Lurzorua antolamendurako hirigintza dokumentua onartzeko unean: 20.000,00 euro.
- Jarduera lizentzia eskatzeko unean: 20.000,00 euro.
- Proiektuari lotzeko eskabidea aurkeztu baino hamabost egun lehenago: 40.000,00 euro.

Kontratu horien arabera egindako ordainketak, gauzatutako ekintzen betetze mailaren arabera, honako hauek izan dira:

Concepto	Euros
Arabako Errioxako Ekiola S.Coop.	59.960,00
Arabako Lautadako Ekiola S.Coop.	120.000,00
Arabako Mendialdeko Ekiola S.Coop.	120.000,00
Gorbeialdeko Ekiola S.Coop.	100.000,00
Aiarako Ekiola S.Coop.	80.000,00
Añanako Ekiola S.Coop.	60.000,00
Gasteizko Landako Ekiola S.Coop	39.950,00
Total	579.910,00

Sozietateak kontratu bat sinatu zuen aurreko ekitaldian Arabako Mendialdeko Ekiola sozietate kooperatiboarekin, eta, horren bidez, 922.591,38 euroko ekarpena egin du, 1,5 MWp-ko dimentsioko lehen proiektu fotovoltaikoaren eraikuntza finantzatzeko. Era iragankorrean eta kontingentean, Enargiri esleitu dizkio planta fotovoltaikoaren ehunekoari dagozkion panelak. Ehuneko hori honela kalkulatu da: Enargik azkenean ordaindutako zenbatekoa zati kooperatibak eraikitzeke egiten duen inbertsio ez-finantzatuaren guztizko kostua, Enargik aldi baterako aukera eskubidea izan dezan horietatik eratorritako elektrizitatea esleitzeko, berarentzat edo hirugarren batentzat.

Sozietateak kontratu bat sinatu du ekitaldian Arabako Lautadako Ekiola sozietate kooperatiboarekin, eta, horren bidez, 714,072,64 euroko ekarpena egin du, 1,256 MWp-ko dimentsioko lehen proiektu fotovoltaikoaren eraikuntza finantzatzeko. Era iragankorrean eta kontingentean, Enargiri esleitu dizkio planta fotovoltaikoaren ehunekoari dagozkion panelak. Ehuneko hori honela kalkulatu da: Enargik azkenean ordaindutako zenbatekoa zati kooperatibak eraikitzeke egiten duen inbertsio ez-finantzatuaren guztizko kostua, Enargik aldi baterako aukera eskubidea izan dezan horietatik eratorritako elektrizitatea esleitzeko, berarentzat edo hirugarren batentzat.

Sozietateak honako kontratu hauek sinatu ditu ekitaldian, eta ezarritako ekarpenak ekitaldiaren itxieran egiteko daude:

- Kontratu bat Aiarako Ekiola sozietate kooperatiboarekin, eta, horren bidez, gehienez ere 1.353.854,51 eurorainoko ekarpena egingo du, lehen proiektu fotovoltaikoaren eraikuntza finantzatzeko. Era iragankorrean eta kontingentean, Enargiri esleitu dizkio planta fotovoltaikoaren ehunekoari dagozkion panelak. Ehuneko hori honela kalkulatu da: Enargik azkenean ordaindutako zenbatekoa zati kooperatibak eraikitzeke egiten duen inbertsio ez-finantzatuaren guztizko kostua, Enargik aldi baterako aukera eskubidea izan dezan horietatik eratorritako elektrizitatea esleitzeko, berarentzat edo hirugarren batentzat.
- Kontratu bat Gorbeialdeko Ekiola sozietate kooperatiboarekin, eta, horren bidez, 811.655,89 euroko ekarpena egingo du, 1,256 MWp-ko dimentsioko lehen proiektu fotovoltaikoaren eraikuntza finantzatzeko. Era iragankorrean eta kontingentean, Enargiri esleitu dizkio planta fotovoltaikoaren ehunekoari dagozkion panelak. Ehuneko hori honela kalkulatu da: Enargik azkenean ordaindutako zenbatekoa zati kooperatibak eraikitzeke egiten duen inbertsio ez-finantzatuaren guztizko kostua, Enargik aldi baterako aukera eskubidea izan dezan horietatik eratorritako elektrizitatea esleitzeko, berarentzat edo hirugarren batentzat.

Beti ere, Enargiri esleitutako panelei dagokien elektrizitatea Arabako Lurralde Historikoan egoitza duten hirugarren kontsumitzaileei esleitu zaie, kooperatibako bazkide kontsumitzaile gisa sartuta egon edo ez egon; izaera iragankorra eta kontingentea izango du, eta erabat edo zati batean amaituko da kooperatiban sartzen diren bazkide kontsumitzaileek Enargiri esleitutako panel batzuk edo guztiak behar dituztenean, eta haien kontsumo elektrikoei erantzuteko aukera ematen duen energiaren gainekoa izango da. Zehaztutako prezioa instalazio fotovoltaikoa eraikitzeke gastuei soilik aplikatu behar zaie, eta, nolanahi ere, kontratuan adostutako baldintza, epe eta mugekin itzuli ahal izango da.

Enargik ezin izango du aukera hori baliatu, baldin eta instalazio fotovoltaikoa eragiketa komertzialetan jartzen den egunean kooperatibak instalazio osoa bazkide kooperatibistei esleitu badie. Kasu horretan, kooperatibak oso-osorik itzuliko dizkio Enargiri prezioa osatzen duten ordaindutako zenbatekoak.

Instalazio fotovoltaikoa martxan jartzen den egunean kooperatibak ez badie hura osorik esleitu kooperatibako bazkideei, ulertuko da Enargik automatikoki, jakinarazi beharrik gabe eta urtebeteko epean, dagozkion panelak eta instalazio fotovoltaikoko elektrizitatea esleitzeko aukera baliatzen duela. Aukera hori bazkide kooperatibistei esleituta ez dagoen planta fotovoltaikoaren zatira mugatuko da. Urtebete igaro ondoren, esleitzeko eskubidea iraungi egingo da. Kasu horretan, esleitutako instalazioaren amortizazio balioari dagokion prezioaren zatia, oraindik itzuli gabe dagoena, itzuli beharko dio kooperatibak Enargiri, baldin eta finantzatutako zatiaren itzulerari aplikatu ez bazaio.

Itzuli ez den prezioaren gainerakoa beste esleipen eskubide bati aplikatu zaiola ulertuko da, beste urtebeteko aldi baterako eta dagokion instalazioaren zatiagatik.

Aukera amaitzen denean, edo edozein luzapen amaitzen denean, edo horietako edozeinek irauten duen bitartean, instalazio fotovoltaiko osoa kooperatibistei esleitu bazaie, kontratua azkendutzat joko da, eta kooperatibak itzuli beharreko prezioaren zatia itzuliko du.

Epe laburreko finantza-aktiboak

2023ko abenduaren 19an, Foru Gobernu Kontseiluak 857/2023 Erabakia eman zuen, Enargi Araba SAU sozietate publikoari 1.300.000,00 euro transferitzea onesteko, Aiarako Ekiola, S.Coop. kooperatibarekin sinatu beharreko kontratu bat sina dezan, panelak eta sortutako energia aldi baterako eta kontingenteak esleitzeko kontsumitzaileei. Ekitaldiaren amaieran kobratzeke zegoen zenbateko hori geroago ordaindu zen, 2024ko urtarrilean. Ekitaldia ixtean, sozietateak dagokion kontratua sinatu zuen kooperatibarekin. Epigrafe horrek, gainera, zordun komertzialen eta kobratu beharreko beste kontu batzen partida jasotzen du (administrazio publiko zordunak), 190.860,86 eurokoa.

6.2. Finantza-pasiboak

Epe luzerako finantza-pasiboak

"Epe luzerako beste finantza-pasibo batzuk" izeneko kontuak 2.383.864,02 euroko zenbatekoa jasotzen du (2.383.874,02 euro aurreko ekitaldiaren itxieran) Arabako Foru Aldundiak honako ekintza hauek finantzatzeko egindako edo onetsitako transferentzien zenbatekoa:

Concepto	2023	2022	Aplicación
Aportación dineraria Ekienea	7.200,00	7.200,00	Financiación préstamo Ekienea
Contratos cooperativas	120.000,00	120.000,00	Financiación Plazo 1 Asignación transitoria
Contratos cooperativas	600.000,00	600.000,00	Financiación resto asignación transitoria
Contratos cooperativas	20.000,00	20.000,00	Financiación Plazo 1 Asignación transitoria
Contratos cooperativas	1.636.664,02	1.636.674,02	Financiación construcción proyecto fotovoltaico
Total	2.383.864,02	2.383.874,02	

Ekienea SL sozietatearen partaidetza eskuratzeko erabakien barruan, sozietatea subrogatzea aurreikusten da, Ekienea SLri emandako 7.200,00 euroko mailegu batean.

Foru Gobernu Kontseiluak, uztailaren 13ko 441/2021 Erabakiaren bidez, onetsi zuen Enargi Araba SAU sozietate publikoari 720.000,00 euroko transferentzia egitea, sei kooperatiba eratzeko, eta hartutako konpromisoen arabera Enargi Araba SAUri dagozkion kontsumitzaileei panelak eta sortutako energia aldi baterako eta kontingentziaz esleitzeko kontratuak sinatzeko. Kontsumitzaileei panelak eta sortutako energia aldi baterako esleitzeko kontratuak sinatzeko kontsignazioaren banaketa honako urte hauetan banatzen da:

Anualidad	Euros
2021	480.000,00
2022	240.000,00
Total	720.000,00

Foru Gobernu Kontseiluak, abenduaren 27ko 865/2022 Erabakiaren bidez, onetsi zuen Enargi Araba SAU sozietate publikoari 1.756.664,02 euroko transferentzia egitea, Gasteizko Landako Ekiola sozietate kooperatiboa eratzeko, Enargi Araba SAUri dagozkion kontsumitzaileei panelak eta sortutako energia aldi baterako eta kontingentziaz esleitzeko kontratu bat sinatzeko, hartutako

konpromisoekin (120.010,00 euro), bai eta Arabako Mendialdeko Ekiola (922.591,38 euro) eta Arabako Lautadako Ekiola (714.074,64 euro) kooperatiben proiektu fotovoltaikoak finantzatzeko ere, honela banatuta:

Anualidad	Euros
2022	1.656.664,02
2023	100.000,00
Total	1.756.664,02

Epe laburrerako finantza-pasiboak

Hartzekodun komertzialen eta ordaindu beharreko beste kontu batzuen partidak (112.038,26 euro) 2024an du epemuga. Hornitzaileen kontuaren saldoa (38,18 euro), zerbitzuak emateagatik hartzekodunak (111.980,47 euro) eta administrazio publikoak (19,61 euro) jasotzen ditu.

7. FUNTS PROPIOAK

Sozietatearen kapitala

Kapital soziala 60.000,00 eurokoa da, eta 600 akzio izendunek osatzen dute. Akzio bakoitzak 100,00 euroko balio nominala du, eta Arabako Foru Aldundiak harpidetu eta ordaindu ditu.

Bazkideen ekarpenak

Foru Gobernu Kontseiluak abenduaren 19ko 857/2023 Erabakiaren bidez, onetsi zuen Enargi Araba SAU sozietate publikoari 1.300.000,00 euro transferitzea, Aiarako Ekiola, S.Coop. kooperatibarekin kontratu bat sina dezan, panelak eta sortutako energia aldi baterako eta kontingenteak esleitzeko kontsumitzaileei. Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak egindako urteko finantza planean jasotakoaren arabera ordainduko da ekarpena.

8. DIRULAGUNTZAK, DOHAINTZAK ETA LEGATUAK

Sozietateak jasotako dirulaguntzei, dohaintzei eta legatuei buruzko informazioa eta haietatik datozen galera-irabazien kontuari egotzitako emaitzak hauek dira:

	Euros
- Saldo inicial	178.254,06
- Concesion-Gobierno Vasco	253.026,00
- Concesion-DFA Aport Cooperativas	10,00
- Importe imputado a resultados	-277.748,75
Saldo al 31.12.2023	153.541,31

Eragiketa horren aitopenean ez da zerga eragina erregistratu, haren errealitate ekonomikoa kontuan hartuta; izan ere, ondorio hori neutroa da eragiketa osoan, etorkizunean zergengatik ordaindu beharreko zenbateko handiagoak eratoritzen ez diren neurrian. Balio narriaduragatik gastuaren zenbatekoa kapital dirulaguntzaren emaitzetara egozteagatik diru sarrera bati dagokio. Gainera, sozietateak sozietateen gaineko zergaren zerga oinarri negatiboa aurkeztu du.

Partida honek kontzeptu hauek jasotzen ditu:

Arabako Foru Aldundiak egindako transferentziak

	Importe Original	Traspaso a Resultados	Saldo al 31.12.2022
- Adquisicion de participaciones Ekienea	178.920,00	-25.448,69	153.471,31
- Adquisicion de participaciones Cooperativas	70,00	0,00	70,00
TOTAL	178.990,00	-25.448,69	153.541,31

2020ko abenduaren 1ean, diputatu nagusiaren 423/2020 Foru Dekretuaren bidez, 109.800,00 euroko transferentzia onetsi eta kontsignatu zen, Euskadiko eguzki parkeko akzioak erosteko, % 2ko portzentajea.

2021eko otsailaren 18an, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Sailaren 25/2021 Foru Agindua eman zen; horren bidez, Ekienea, SL sozietateari diru ekarpena egiteko transferentzia onetsi zen, kapitala handitu gabe, 76.320,00 eurokoa. Ondoren, 2021eko martxoaren 4ko 49/2021 Foru Agindua aurreko agindua aldatzen du, eragiketa egiteko moduari dagokionez.

Sozietateak salerosketaren zenbatekoa ordaindu zuen, bai partaidetzak erosteari dagokionez, bai funts propioetarako ekarpenaren subrogazioari dagokionez, guztira 178.920,00 euro ordainduz. 2022an ez zen balio narriadurarik erregistratu, eta, ondorioz, ez zitzairen inolako kopururik aplikatu emaitzei. 2023an 1.948,69 euroko zenbatekoa aplikatu da, ekitaldian aintzatetsitako balio narriadurari dagokiona.

Foru Gobernu Kontseiluak, uztailaren 13ko 441/2021 Erabakiaren bidez, onetsi zuen sozietateari transferentzia egitea, sei kooperatiba eratzeke, eta hartutako konpromisoen arabera Enargi Araba SAUri dagozkion kontsumitzaileei panelak eta sortutako energia aldi baterako eta kontingentziaz esleitzeko kontratuak sinatzeko, 60,00 euroko ekarpena barne, sei kooperatiba eratzeke. Ondoren, 70,00 eurora handitu zen, Gasteizko Landako Ekiola, S.Coop. kooperatiba sartu baitzen.

Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuaren dirulaguntza

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Laneratzea Aktibatzeke zuzendariak erabaki zuen 2022an sozietateari 32.108,92 euroko dirulaguntza ematea, administrazio publikoetan lehen esperientzia profesionala izateko programa finantzatzeko laguntzen barruan, ekitaldian sinatutako lan kontratua finantzatzeko. 2022an, emaitzei 9.334,86 euroko zenbatekoa aplikatu zitzairen, hau da, ekitaldi horretan kontratatutako pertsonaren soldata kostua. 2023an gainerako zenbatekoa aplikatu da, hau da, 22.774,06 euro, ekitaldi honetan jasandako soldata kostuari dagokiona.

Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Saileko

Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Saileko Gizarte Ekonomiako zuzendariak, 2022ko abenduaren 31n, ebatzi zuen Gizarte Ekonomian Ekitateko laguntzen programaren barruan, gizarte ekonomiaren forma duten komunitate energetikoak sortzeko laguntzen esparruan, 126.513,00 euroko bi dirulaguntza ematea (253.026,00 euro guztira), bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko sailburuaren 2022ko irailaren 28ko Aginduaren babesean. Ekitaldiaren itxiera datan, oso-osorik gauzatu dira, Enargik jatorri eolikoa duen energia elektrikoa sortzeko eta autokontsumitzeko kooperatibei buruzko informazio, zabalkunde eta eraketarako Jarduketa Plana hedatzeko laguntza teknikoko kontratua gauzatu, 254.970,00 euroko zenbatekoarekin.

9. ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

Sozietateak -25.495,09 euroko Sozietateen gaineko Zergaren zerga oinarria aurkeztu du, etorkizuneko ekitaldietako zerga oinarriarekin konpentsatu ahal izango dena, aurretiko zerga oinarriaren % 70eko mugarekin.

Sozietateak etorkizuneko ekitaldietan konpentsatzeko dituen zerga oinarri negatiboak honako hauek dira:

Ejercicio	Euros
2021	10.103,64
2022	10.924,00
2023	25.495,09
Total	46.522,73

Gainera, zerga izaerako saldo zordunak ditu: 65.250,28 euro BEZari dagozkionak, eta 4.456,58 euro zergak itzultzeagatik.

Indarrean dauden lege xedapenen arabera, zergen likidazioak ezin dira behin betikotzat jo harik eta zerga agintariak ikuskatu arte edo egun ezarrita dagoen bost urteko preskripzio epealdia igaro arte. Sozietateak azken lau ekitaldiak irekita ditu aplikatu dakizkiokeen zerga guztiak ikuskatzeko. Sozietatearen administrazioa iritzi, ikuskapenik egitekotan, ez litzateke egongo zenbateko handiko zerga kontingentziarik sozietateari aplikatu dakiokeen zerga araudia modu ezberdinean interpretatzeagatik.

10. DIRU SARRERAK ETA GASTUAK

Sozietateak 277.748,75 euroko diru sarrerak lortu ditu ekitaldian, kapitaleko dirulaguntzen emaitzei aplikatzearenak (8. oharra). 23.455,71 euroko finantza sarrerak izan ditu.

294.195,39 euro sortu ditu ustiapen gastu gisa (7.804,34 euro aurreko ekitaldian).

"Langile gastuak" partidak honako banakapen hau zuen:

Concepto	Euros
Sueldos y salarios	22.757,13
Seguridad social	7.638,85
Total	30.395,98

11. BESTELAKO INFORMAZIOA

Ekitaldian, sozietatearen batez besteko plantilla 0,71 pertsonakoa izan da. Ekitaldia ixtean ez zuen altan zegoen langilerik.

Ez da batere kargurik sortu Administrazio Kontseiluko kideen soldata, dieta eta ordainsarien kontzeptuarengatik.

Enargi Araba SAU sozietateko administrariak eta pertsona lotetsiek ez dute jakinarazi sozietatearekin zuzeneko edo zeharkako gatazka egoerarik dutenik, Kapital Sozietateei buruzko Legeak 229. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

BNFIX KLZ AUDITORES SLP sozietateak, 2023ko ekitaldiko auditoretzagatik, 3.500,00 euroko ordainsaria sortu du (1.227,14 euro 2022an) auditoria zerbitzuengatik ordainsari gisa. Ordainsari horiek Arabako Foru Aldundiak ordaindu ditu.

12. EKITALDIAN HORNITZAILEEI EGINDAKO ORDAINKETA GERORATZEEN INGURUKO INFORMAZIOA

Merkataritza eragiketetan hornitzaileei egin beharreko ordainketak geroratzearen inguruko informazioa:

	Ejercicio 2023	Ejercicio 2022
	Días	Días
Periodo medio de pago a proveedores	32,96	3,51
Ratio de operaciones pagadas	19,44	3,00
Ratio de operaciones pendientes de pago	60,00	6,27

	Importe (euros)	Importe (euros)
Total pagos realizados	223.815,04	11.515,24
Total pagos pendientes	111.980,47	38,18

Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko aldia kalkulatzeko metodologia ekonomikoa hemen dago jasota: Administrazio Publikoen hornitzaileei ordaintzeko batez besteko aldia kalkulatzeko metodologia garatu zuen uztailearen 25eko 635/2014 Errege Dekretua (abenduaren 22ko 1040/2017 Errege Dekretuak aldatu du).

13. LANGILEEI BURUZKO DATUAK ETA ARABAKO FORU ALDUNDIAREN EKARPENAK

LANGILE ETA A.F.A.KO EKARPENAK DATUAK	DATOS DE PERSONAL Y APORTACIONES DE D.F.A.	2023	2022
KOSTUA PERTSONAKO	COSTE PERSONAL	42.811,24	42.823,07
LAGILERI GASTUAK	GASTOS DE PERSONAL	30.395,98	12.418,69
LANGILE	PLANTILLA	0,71	0,29
A.F.A.REM DIRU LAGUNTZAK	APORTACIONES D.F.A.	1.300.000,00	1.896.674,02
KAPITAL DIRULAGUNTZEN	SUBVENCIONES DE CAPITAL	0,00	1.896.674,02
USTIAPEN DIRULAGUNTZEN	SUBVENCIONES A LA EXPLOTACIÓN	0,00	0,00
GALERAK BERDINTZEKO EGINDAKO EKARPENA	APORTACIONES COMPENSACIÓN DE PÉRDIDAS	1.300.000,00	0,00
KAPITAL	CAPITAL	0,00	0,00

ENARGI ARABA SAU

KUDEAKETA TXOSTENA – 2023KO EKITALDIA

2023an, sozietateak iturri berriztagarriak erabiltzen dituzten energia elektrikoko instalazioak sustatzen eta ekoizten jarraitu du. Esanguratsuenak honako hauek izan dira:

- Arabako Lautadako Ekiola, S. Coop. kooperatibarekin kontratu bat sinatzea, 714,072,64 euroko ekarpena eginez, 1,256 MWp-ko dimentsioko lehen proiektu fotovoltaiakoaren eraikuntza finantzatzeko.
- Aiarako Ekiola, S. Coop. kooperatibarekin kontratu bat sinatzea, gehienez 1.353.854,51 eurorainoko ekarpena eginez, lehen proiektu fotovoltaiakoaren eraikuntza finantzatzeko.
- Gorbeialdeko Ekiola, S. Coop. kooperatibarekin kontratu bat sinatzea, 811.655,89 euroko ekarpena egiteko, 1,256 MWp-ko dimentsioko lehen proiektu fotovoltaiakoaren eraikuntza finantzatzeko.

Akordio horiek berekin dakarte panelak Enargiri esleitzea modu iragankor eta kontingentean, planta fotovoltaiakoaren portzentajeari dagozkionak. Enargik azkenean ordaindutako zenbatekoa zati kooperatibak eraikuntzarako egiten duen finantzatu gabeko inbertsioaren kostu osoa egitearen emaitza da, Enargik aldi baterako aukera eskubide bat izan dezan berentzat edo hirugarren batentzat horietatik ateratzen den elektrizitatea esleitzeko.

Gainera, aurreko ekitaldian Gasteizko Landako Ekiola kooperatibarekin sinatutako kontratuaren lehen ordainketa egin du, proiektuaren lehen faseari dagokiona.

2023ko abenduaren 31n, honako hauek dira izenpetutako akordioen arabera egindako ordainketak:

Concepto	Euros
Arabako Errioxako Ekiola S.Coop.	59.960,00
Arabako Lautadako Ekiola S.Coop.	834.072,64
Arabako Mendialdeko Ekiola S.Coop.	1.042.591,38
Gorbeialdeko Ekiola S.Coop.	100.000,00
Aiarako Ekiola S.Coop.	80.000,00
Añanako Ekiola S.Coop.	60.000,00
Gasteizko Landako Ekiola S.Coop	39.950,00
Total	2.216.574,02

2024an, akordioak erabat gauzatzea eta instalazioak abian jartzea aurreikusten da.

Ordainketa horiek finantzatzeko, Aldundiak transferentziak egitea onetsi du, eta ekitaldia itxi arte guztira 3.676.674,02 euro eman ditu. Instalazioa abian jarri ondoren, bazkide kontsumitzaile berriak sartzea aurreikusten da, eta horiek sozietateari egindako ekarpena itzuliko dute. Hori gertatzen ez bada, sozietateak bere kontsumorako edo hirugarrenei saltzeko instalaziotik ateratako energia esleitzeko eskubidea lortuko du.

Sozietateak goi-mailako teknikari bat kontratatu du irailean.

Bestalde, ez da akzio propioen titularra eta ez du I+G jarduerarik garatu.

Gasteiz, 2024ko martxoaren 21a.

Saray Zárate Fernández de Landa
Lehendakaria

Inés Vadillo Alzola
Idazkaria

Cristina González Calvar

Anartz Gorrotxategi Elorriaga

Elena Ferreira Sebastián

Amaia Barredo Martín

Laura Pérez Borinaga

Itziar Gonzalo de Zuazo

Maria Jose Madeira Garcia